

LABURAREN

BASAURI

‘Basauri, kalez kale’ liburuaren bigarren argitalpena kalean dago

Basauri, kalez kale liburuaren bigarren argitalpena egin dabe; 500 ale gehiago salgai ipini ditue. Basauriko eraikinen informazioa eta udalerriko hainbat bitxikeria aurkitu daitezke liburuan. «Basauriko paisaian tokigarrantzitsua eben leku eta eraikinak zelangoak ziran era diran, non egozan eta orain zer geratzen dan adierazo gura deuskue liburuaren egileek», azaldu dabe Udaletik. Liburua 1.000 pezetan eskuratu leike.

KARATEA

Patxi Martinez sestaoarrak brontzeko domina lortu dau

Patxi Martinez Sestaoko karatekak brontzeko domina lortu dau Rotterdameko nazioarteko txapelketan. Txapelketa hori munduko garrantzitsuenetakoa da. Kumite kategoria lortu dau 19 urteko sestaoarrak domina, hau da, 80 kilo baino gehiagoko kategorian. Joan dan urtarrean jokaturako Europako txapelketan be brontzeko domina lortu eban Martinezek.

BILBO

Jon Urrutia piano joleak jazz kontzertua eskainiko dau gaur

Jon Urrutia pianojoleak jazz kontzertua eskainiko dau Nervion hotelean, arratsaldeko 20:00etan. EEBBko Boston uritik etorri barria da Urrutia, izan be, bertan egin ditu pianoko goi mailako ikasketak. Jazz musikan espezializatu da Urrutia.

Lau lagun atxilotu ditue alkoholaren eraginpean gidatzeagaitik

Lau gidari atxilotu zituen Bilboko Udaltzaingoak joan dan asteburuan alkoholaren eraginpean gidatzeagaitik. Guztira 107 froga egin zituen, eta horreetatik bostek baino ez eben erakutsi larregizko alkohol kontsumoa. Bestalde, 38 auto istripu gertatu ziran aurreko astegoie-nean, eta 9 lagunek zauriak izan zituen.

SUSANN PAULI EUROPAKO EUSGARITASUN PROGRAMA LOKALEKO ARDURADUNA

LANTALDEA

Bizkaiko Udalerrietako Eusgarritasun Adierazgarrien Sistemagaz bat egin eta agiria sinatu eban atzo Susann Paulik, Bilbon.

Europako Eusgarritasun Programa Lokaleko arduraduna da bera.



Susann Pauli, atzo, Bilbon, Bizkaiko Udalerrietako Eusgarritasun Adierazgarrien Sistema sinatu ostean.

«Bizi kalitate orekatua izatea da helburua»

Izaskun Basterretxea | BILBO

Bizkaiko udalerriek eta Foru Aldundiak Eusgarritasunaren ganean egindako txostena sinatu eban atzo Susann Paulik. Programa horren bitartez, udalerrien eta bizilagunen egoera ekonomiko-soziala eta ingurumena ezagutu eta aztertuko dabe, eta horren gestinoa modu orekatuan egingo dabe. Hau da, udalerrien garapen eta herritarren bizi kalitate orekatuak lortzen laguntzeko tresna da.

Horretarako, 30 eusgarritasun adierazgarri onartu ditue Bizkaiko Sistemak. Horreetatik zortzi, Europako Batzordeak proposaturakoak dira; eta besteak Bizkaiko udalerriek begira onartutakoak dira. Hasi, «seguruenik aurtan», Europako Batzordeak proposaturako zortzi adierazgarriak hasiko dirala esan eban Maria Esther Solabarrieta Ingurumen diputatuak. Batez be garraioari eta inguru-

menari lotutako adierazgarriak dira horreek.

Solabarrieta eta Karmelo Sainz de la Maza EUDELeke presidentea pozik agertu ziran Susan Paulik agiriagaz bat egin daualako. Paulirentzat be «pozgarria da holako sistemak gertetea», esan eutsan *Bizkaia*ri.

■ Zer da Eusgarritasuna?

Ongizate ekonomiko, sozial eta ingurumena aintzat hartuta, hirurak kontuan hartuta, modu orekatuan garatzea. Hau da, beharrian ekonomiko-sozialei erantzutea, eta hori, ingurumen egokiaren barruan egitea. Zer, adibidez? Diru-sarrera egokiak izatea, etxea, janaria, hezkuntza, oinarritzko zerbitzuak (ura, berogailua...), alde batetik bestera joateko garraio egokiak izatea, bedartzak, aire kalitatea...

■ Bizi kalitate hobea izatea?

Hori esateko beste modu bat da, baina berba arriskutsua da. Izan be, bizi kalitatea epe laburrerako izan leiteke; hau dau, «nire

etxea, dirua badaukat, nasai bizi naz...» pentsatu leike askok, eta geroari jaramonik egin ez. Hori dala eta, eskuran daukaguzan bitartekoak larregi erabiltea ez da komeni; hau da, behar baino energia gehiago gastatea... Orduan, etorkizuneko belaunaldiak begira be ardurak hartu behar doguz gaur egun. Eta azken baten, horixe da helburua: gaur

«Bizkaian ederto gertatu dabe lan prozesua eta udalerri gehienek hartu dabe parte»

SISTEMA

«Garrantzitsua da tokian tokiko Eusgarritasun Sistema gertetea»

egun eta etorkizunean bizi kalitate orekatua izatea, eta horren alde guztiok, lantaldean, lan egitea. Erakundeek bitartekoak ipini eta uritarrek erabiltea.

■ Ez da gaxa egoera ekonomiko-soziala eta ingurumena modu orekatuan batzea?

Bai, zailtasunak sortzen dira hirudimentsinoak adierazgarri baktotxean batzean. Hori dala eta, Europar proposaturako hamar adierazgarrietatik aparte, barriak eta gehiago lortu behar doguz. Eta horretarako, garrantzitsua da tokian-tokiko Eusgarritasun Sistema onartzea.

■ Zer erizten deusazu Bizkaian gertatutako sistemari?

Pozgarria da, benetan. Bizkaian ederto egin dabe lan. Udalerrigehienek -111- hartu dabe parte, eta ondo gertatu dabe prozesua: 14 taldetan bananduta, 28 batzar egin ditue dagoeneko. Horrek esan gura dau udalerriek eta Aldundiak sistema honen alde lan egiteko konpromiso sendoa daukiela. Eta horixe da Europako adierazgarriak ugaritzeko bidea. Izan be, eusgarritasuna aurrera bideratzeko, ezinbestekoa da tokian-tokiko erakundeek alkarregaz lan egitea: udalerriek, gobernu autonomoak... Udal baktotzak bere kontura lan egin baino eraginkorragoa da taldean egitea.

AGENDA

BARAKALDO

Erakusketa: Maria Felisa Urraca, Crisstina Pujalte eta Maria Jesus Martinen pinturak eta eskulturak. Udal Erakusketa Aretoa, martiaren 23ra arte.

BILBO

Musika: Jackie Revion. Gaur, 20:00etan, Mystic kafetegian.

Antzerkia. Korrika Kulturala:

Komerika. Gaur, 20:00etan, Arriaga Antzokian. Aktoreak: Jose Ramon Soroiz,

Ane Gabarain, Elena Irureta, Pantxo Irigarai, Loli Astoreka, Ramon Agirre, Iñaki Beraetxe, Maiken Beitia, Antton Luku, eta Aizpea Goenaga, Aitor Beltranen zuzendaritzapean.

Antzerkia: *Perdidos en la miel*. Gaur, 17:00etan, Juan Antxieta auditorioan. El Planeta Imaginario. Kafe-antzerkia.

Antzerkia: *Cuarteto*. Gaur, 19:00etan, Ingeniaritza Teknikoko Eskolan.

GALDAKAO

Erakusketa: Cecilia Sans Rabadaren pinturak, Torrezabal kultur etxean.